

Intsumisioa

Jean Francoise Lefort intsumisoak 13 hilabeteko gartzela zigorra jaso du

Intsumiso nafarren alde pertsonaia ezagunek hitzegingo dute ekainaren 2an

Atzo iragan zen Poitierseko auzitegian Jean François Lefort 'Lof', Ipar Euskal Herriko hirugarren intsumiso presoaren auzia eta hamahiru hilabeteko gartzela zigorra ezarri zion epaileak. Bestalde, ekainaren 2an hamabi intsumiso nafar epaituko dituzte Iruñean eta pertsonaia ezagunek elkartasuna adierazi diete.

O.G./J.K.L. / BAIONA/IRUÑEA

Estatu frantziarrean intsumisioagatik ezar daitekeen zigorrak handiena ezarri zion atzo Jean Francoise Leforti Poitierseko auzitegiak. Maitzaren 4ean arrestatu zuten Larresoron (Lapurdi), intsumisioaren aldeko ibilaldian eta ondoren Poitierseko koartelara eraman zuten. Beste bi intsumisoak Erik Lexardoi eta Nikolas Padronesek joan zen astean hamar hilabeteko espetxe zigorra jaso zuten Bordeleko epaitegi korrekzionalaren aginduz.

Jean Francoise Lefort intsumisioa hamahiru kilo gutxigo zituela azaldu zen auzitegiaren eta ez zioten euskaraz mintzatzen utzi. Bestalde Patxak salaketa bat egin du, joan zen larunbateko gose



Jean Francoise Lefort eta beste bi intsumisioen atxiloketen aurka ekintza ugari izan dira azken egunotan.

greban eta preso diren Iparraldeko hiru intsumisioen aldeko manifestaldian, Poliziaren indarke-riagatik.

Patxak dioenez: «Poliziaren eta Helie komisarioa bere buruzagiaren basakeriaren ondotik hamabost bat jende kolpatuak izan dira, ospitalera eramanak eta horietarik bat oso larriki kolpatua, hamar puntu eman bait dizkiote buruan eta zortzi eskuan».

Gizona Gizon bide baketsuen bitartez borrokatu nahi duen elkarteak akusatu duenez «Frantziako botereak, Polizaren basa-

keria ahalbideratu du».

Beste salaketa batzuen artean, Ortzadar talde alterniboak honako hau gehitu du: «Frantziako botereak arazoa konpondu nahi al du polizien sarekaden bitartez?».

INTSUMISO NAFARREN ALDE Hamalau pertsonaia ezagun defentsaren lekuko izanen dira hamabi nafar intsumisioen aurkako epaiketetan. Hamabi gazte nafarrak Ordezko Zerbitzu Soziala bete nahi ez izateagatik epaituko dituzte dato-



rran asteartean, ekainak 2, Iruñeko Penaleko 1 zenbakiko Epaitegian.

Intsumisioen defentsak deituko dituen lekukoen artean daude Guillermo Mujika eta Jesus Lezaun teologoak, Madrilén absolutu zuten Iñaki Arredondo intsumisioa, Mario Gabiria eta Carlos Vilches soziologoak Fabricio Potestad psikiatra, Montxo Armendariz zinema zuzendaria, Javier Eder idazlea, NUPEko errektore ohia Alejandro Arizkun eta Jesus Garatea sindikalista.

Ikastolak

Buesa PSOEkoka delako du HB bere aurka sozialisten ustez

DONOSTIA

Euskal Herriko Ikastolen Elkarte Fernando Buesaren aurka egiten ari den kanpainaren alde agertu da HB «sozialistok Euskal Autonomi Elkartearen gero eta erantzukizun handiagoa izatea jasangaitza zaiolako», PSOEn usteetan.

Ikastolen Elkarteak Fernando Buesa Hezkuntza kontseilari, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Arabako PSOeko idazkari orokorraren aurka hasi duen kanpaina dela eta, PSOek bere laguntza osoa eskaini dio. Javier Rojo PSOeko Arabako idazkariordearen hitzetan, Jaurlaritza osoaren lana «gaitzestea» beste helbururik ez duen kanpaina politikoa da berau, «Buesaren politika Jaurlaritza osoarena da eta berak egindakoak lehendakariak berak egin balitu bezala da» zehaztu zuen.

Bere iritziz Elkartearen kan-

paina euskararen kalterako da Araban «euskararen aurkako erantzuna sortzen duelako, UA eta antzerako taldeen mesedetan». Rojoren aburuz, kanpaina instituzioen funtzionamenduari berri ez dakitenek egin da eta hauek instituzio horietan ez dutela sinesten gehitu zuen.

Gainontzeko hezkuntza zentruetako parekatuz gero, ikastolek 4.400 milioi pezetako «gainfinantzaketa» jaso dutela adierazi zuen Rojok. Era berean, EAJ eta PSOEn artean tirabirak pizten saiatzea leporatu zien ikastolei.

Ikastolak kritikatzearaz gain, beste alderdien aurkako adierazpenak ere egin zituen. «EA eta EUE alderdiek ere Buesaren aurkako salaketak egin dituzte, Jaurlaritzaren aurka ekitearren bonbardaketa batean parte hartzeko gai direlako» azpimarratu zuen Javier Rojo Arabako PSOeko idazkariordeak.

Iruñeko Eguzki Irratia itxi zuen atzo Polizia Nazionalak

J.K.L. / IRUÑEA



Atzo Iruñeko Eguzki Irrati librea itxi zuen Polizia Nazionalak arratsaldeko hiru t'erdietan, irratiak grebari buruzko programa berezia egiten ari zirela. Ordubete lehenago, 50 agente inguru epaile batekin hurbildu ziren Navarrerria kaleko 6. atarira, eta emisora ixteko asmoa agertu zieten irratiak kideei. Gazteek atariko atea ireki ez zuten, polizia gehiago hurbildu ziren bertara.

Esan bezala, arratsaldeko hiru t'erdietan Poliziak atari eta irratiak atea bota zuen. Jarraian, poliziek emisioa eten eta bertan zeudenak identifikatu zituzten. Horren ostean, Iruñeko komisaldegiaren atzo bertan ilunabarreko zazpietan deklaratzeko deia egin zieten «Polizia Nazionalaren

kokapen zehatza irratitik igortzea legala ez delako». Poliziak eraman egin zituen irratiak aparatua guztiak, hala nola, emisorea, nahasketa mahaia, anplifikadorea, 4 mikrofono, bi pletina eta bi tokadisko. Hori guztia gertatzen zen bitartean, 200 lagun inguru bildu ziren Navarrerria kalean, irratiak kideei elkartasuna adierazteko.

Greba orokorra zela eta, Eguzki Irratiak programazio berezia antolatu zuen atzoko. Horren barruan, Eguzki goizeko zazpietatik aurrera langile piketeek egiten zutenaren berri zuzenean eman zuen. Informazioa, telefonoz igortzen zuten irratiak kideek eta entzule arruntek.

Horrela, zuzenean eskaini zuen Eguzki Irratiak gazte baten atxiloteta, baita Polizia eta langileen arteko tirabirak ere.

LABURREAN

GORPU bat atera dute Bilboko Nerbioi ibaitik

Manuel G.G. 31 urteko gizonezkoaren gorpua atera zuten herenegun gauean Bilbotik igarotzen den Nerbioi ibaiko uretatik. Gorpua suhiltzaileek atera zuten, ibaira bere burua bota eta bi ordu beranduago. Lekuko batek Udaltzaingoiari emaniko informazioaren arabera, gaueko hamaikak aldera gizonezko batek bere burua bota zuen ibaira ●

TREN batek su hartu zuen Deban

Eusko Trenbidearen tren bateko bost bagoi suak kaltetu zituen atzo Deban —Gipuzkoa—. Ertzaintzako iturrien arabera, katenariako txinpartak eragin zuen sutea. Makinista eta treneko burua ospitalera eraman zituen Gurutze Gorriaren ambulanzia batek, kearen ondorioz arnasa hartzeko zailtasunak zituztelako ●

LANGABETUEN Asanbladako kidea epaitegiara

Gasteizko Langabetuen Asanbladak salatu du erakundeko kide batek 250.000 pezetako fidantza pagatu behar izatea, nahiz eta oraindik epaiketa egin ez. Iazko azaroaren 11n INEMen pintadak egin zituzten Asanbladakoek eta bi egun beranduago erakundeko kidea atxilotu zuten. Komisaldegiaren tratua txarrak jasotzeagatik salaketa aurkeztu zuen, baina azkenean horri buruzko auzia bertan behera utzi du epaileak ●

HIESaren aurkako txertoa epe luzera

Mundu zabaleko laborategietako zientzialariak kikildurik azaldu dira azken denboraldian HIESaren aurka lortutako emaitzekin. Gaixotasunaren aurkako botika epe laburrera lortuko zela ustea ustel gerta daitekeela eta, beldur dira zientzialariak. Orain artean eginiko aurrerapausuak eztabaidatzeko bildu ziren eta HIESa geldiezina dela adierazi zuten ●